

opusdei.org

Bilboko gotzain laguntzaileak deia egin die Gazteluetako familiei

Mario Izetak, Bilboko gotzain
laguntzaileak, Gazteluetako
familiekin

2009 Urt 14

Bilboko gotzain laguntzaileak, Mario
Izetak, animatu egin zituen
Gaztelueta ikastetxearen, Bizkaian
Opus Dei-ren obra korporatiboa

denaren familiak “hemengo gauzen
lozorrotik iratzartzeko”

Abendualdian zehar, geroago
“familiar, lanean topo egitera
ateratzen den Jesus ezagutzeko”.

“Abendualdia itxarote-aldia da. Ezin
zaigu gertatu birjin memelak
modura; Jesus egunero dator gugana,
behar gaitu eta ezin dugu Bera ez
ezagutu” esan zuen joan zen
abenduari 1ean, Gazteluetako
otoitz-lekuan ospatu zen Ama
Birjinari Bederatziurrenaren lehen
egunean.

Jarraian agertzen dugu gotzain
laguntzaileak eman zuen homiliaren
laburpen bat:

“Azpimarratzea nahiko nuke
Abendualdia graziazko denboraldi
berri baten modura. Izan ere, honela
da: Jainkoa berriro dator gure
ondora, lo egotetik, ohiko gauzen
lozorrotik iratzartzeko. Hona,
denboraldi honetako lau

ezaugarriak: desiratu, itxaron, zain
egon eta otoitz egitea.

Lehena, desiratzeko aldia dugu:
Jainkoa desiratzea, berau baita gure
bihotzak nahi dezakeenik sakonena.
Atzo, igandez, irakurri genuen
Isaiasen hitzekin:”Ai zerua urratu eta
jaitsiko bazina. Orduan urtu egingo
dituzu mendiak zure indarrekin”.
Horixe Jainkoaren nahia. Gizakia,
nahiengatik mugitzen da, eta
Jainkoaganako nahi hau da Haren
irudia garenaren ikurra, gudan
aztarna utzi duenarena. 114 salmoak
dioenez: “Nire arima zure egarriz
dago. Nire ahoa lehor-lehor dago”.
Nik, zer nahi dut nire bizitzan?
Norantz jotzen dut nik?

Ume batek jangura galtzen duenean,
gaixo denaren seinalea da. Gauza
bera gertatzen zaio gizakiari,
Jainkoaganako nahirik ez duenean.
Hemengo gauzak ez dira gai gure
gosea asetzeko eta asko dira euren

interesengatik oka eginik daudenak. Hau gertatzen bada, Jainkoa ukatu egingo dute azkenean. Eska dezagun gaur: Jauna, nik izan dezadala Zuganako gosea, Zuganako egarria, ez ditzadala beste gauzak bilatu; ezpada Zu zerbitzatzeko desioak baizik. Loilako San Iñaxiok zioen: “Jauna, Zurekin eta Zu modura”. Jauna, beti zurekin txirotasunean, Gurutzean, gero, baita Aintzan ere Zurekin egoteko. Jainkoaganako desioa sorrarazi behar dugu Abendualdi honetan.

Abendualdia, itxaropen aldia dugu. Aita Santuaren bigarren entziklikak, “Spes Salvi” diosku “itxaropenez salbatuak izan garela” San Pabloren hitzetan. Jesukristo da itxaropen fidagarri eta egiazko bakarra. Bera bakarrik. Horregatik esan nahi nizueke ez dezazuela itxaropena jarri beste gauzetan, ez fidagarriak ezta egiazkoak ere ez diren beste gauzetan. Gaur egun, asko dira euren

bihotza, itxaropenak,
aberastasunetan, euren dirutan
jartzen dituztenak. Zertarako balio
die orain, aurtengo krisialdi
ekonomikoaren hondamenarekin?
Erdi milioitik gorako langabetuak.
Gauzak, ekonomia, ez dira azken
itxaropena. Gogoratzen duzue
parabola hura, bihitegia betea izanik
atsedena hartzea erabaki eta gau
hartantxe Jainkoa bila joan
zaionarena? Jainkoak ematen dio
parabola horri gakoa: gizakiaren
bizitza ez dago dituen ondasunen
pean. Egiazko bizitza, betirako dena,
ez dago dituzun ondasunen pean.
Lehen irakurgaiak zioen. Salbamina,
Jainkoak ematen du (...)

(...) Gaur eskatzen diogu Ama
Birjinari, bere Bederatziurrenaren
egun honetan irakats diezagula
Jainkoa desiratzen. Emaiguzu erne
dagoen bihotza. Ez gaitezela
lozorroan bizi. Otoitz egin dezagun
San Pablok modura: “Iratzarri, ez

egizu lorik, altxa zaitez hilen artean
zeren Kristo izango baita zure argia”.
Ilusio berarekin itxaron egin zuen
Ama Birjinak Jesusen jaiotza, itxaron
dezagun guk Gabona. Gauza
materialek ez gaitzatela distraitu.
Gabon gauez nahi dezaguna gure
Kristo, gure Jauna izan dadila. Jauna,
bada hemen zerbitzatzen zaituen
bihotz gazte bat, agian jaio zinaneke
estalpea baino zikinagoa. Zatoz nire
bizitzara. Horrelaxe eskatzen diogu
Ama Birjinari, lagun gaitzala
Abendualdia bizi izaten”.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/bilboko-
gotzain-laguntzaileak-deia-egin-die-
familiei-lanean-topo-egitera-ateratzen-
den-jesus-ezagutzeko-2/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/bilboko-gotzain-laguntzaileak-deia-egin-die-familiei-lanean-topo-egitera-ateratzen-den-jesus-ezagutzeko-2/) (2025 Abu 12)